



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 23a

68. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adieraztekoa. María Virginia Magdaleno Alegría andreak (Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa), Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezkierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (15. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten “lindano” izenarekin ezagutzen den pestizida dela-eta. Osoko Bilkurak onetsia (28. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hedatze kanpainak egin ditzan funtzionarioen artean sustatzeko hartutako neurrietan parte-hartzea, enpleguaren banaketa handiagoa lortzeko xedez. Osoko Bilkurak onetsia (29. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da giza papilomaren birusaren aurkako babeserako Nafarroako txertoaren egutegia egokitu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (29. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da LOMLOE legea garatzen duten curriculumari buruzko dekretuetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko mailetan sar dezan berdintasuna, bizikidetzatza, indarkeriarik eza eta bakea helburu dituen heziketa afektibo-sexualaren curriculum-espazio bat. Osoko Bilkurak ezetsi du (30. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan 2022an jada aplikatzeko den PFEZaren tarifaren deflaktazio progresiboari begira. Osoko Bilkurak ezetsi du (30. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Espainiako zentral nuklearren bizitza baliagarria luzatzeari buruzko azterlan orokor bat agin dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (30. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko lau kideak izendatzea (31. or.).
- Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukidea izendatzea (31. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko maiatzaren 12an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lan- postuei eustea bermatzen duena**

#### HITZAURREA

Erlijioiko irakasleen araubide juridikoaren antolamendua erregulazio gai izan da hezkuntzari buruz egin diren legeetan.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 27/2006 Lege Organikoak hirugarren xedapen gehigarrian ezarri zuen ezen funtzionario irakasleen kidegoetakoak ez ziren eta ikastetxe publikoetan erlijioak irakasten zituzten irakasleek administrazio eskudunekiko lan-kontratazioko erregimenean jardunen zutela, Langileen Estatutuari jarraituz. Ezarri zuen, halaber, irakasle horiek lanpostuan sartzeko, berdintasuna, merezimen-dua eta gaitasuna hartuko zirela irizpide objektibo gisa, eta hezkuntza-maila berean bitarteko irakasleei zegozkien ordainsariak jasoko zituztela irakasle horiek.

Ekainaren 1eko 696/2007 Errege Dekretuak arautu egin zuen erlijioiko irakasleen lan-harremana, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarriari aurreikusten zuena. Errege dekretu horretan

arautu ziren erlijioa irakasteko bete beharreko baldintzak, irakasleen kontratazio mugagabea, lanaldi osoko edo partzialeko kontratu modalitatea, destinoa eskuratzeko kontuan hartu behar ziren gutxieneko balorazio irizpide objektiboak eta kontratua azkentzeko arrazoiak. Halaber, xedapen gehigarri bakarrean ezarri zenez, irakasle funtzionarioen kidegoetakoak ez ziren erlijioiko irakasleak, errege dekretuak indarra hartzean kontrataturik bazeuden, besterik gabe igaroko ziren lan-harremana mugagabea izatera errege dekretuan bertan ezarritako baldintzekin, salbu eta lan-harremanaren titularra ordezteko kontrataturik zeudenak.

Legeria nazionala osatuz, Hezkuntza Departamentuak uztailaren 5eko 65/2013 Foru Agindua- ren bidez arautu zuen gure Foru Komunitatean lan-kontratu mugagabea duten erlijio katolikoko irakasleei destinoak esleitzeko sistema.

Lan-kontratu mugagabearekin Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan erlijioa ematen duten irakasle horiei beren irakasgaiaren ordu-karga murrizten ari zaie urteetan zehar egiten ari diren arau aldaketan ondorioz. Azken aldaketa abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (LOMLOE) egin du. Haren ondorioz baliteke Nafarroan legezko gutxiene- kora murriztea irakasgaiaren ordutegia, eta are gehiago laburtzea irakasleek dituzten lanaldiak eta urteetan zehar bereganatu dituzten lan esku- bideak.

Horregatik, lege honen xedea da legezko arau baten aplikazioaren ondorioz mugagabeak diren lanpostu horiei eustea, Nafarroako ikastetxeetan urte asko lanean egin dituzten langile batzuen irakaskuntza-karga errespetatuz, aipatu inguruabarrak arrisku nabarmena sortu baitie beren lanpostuak galtzeko edo lanpostuetan jarraitu arren kolokako egoeran gelditzeko.

**Artikulu bakarra.**

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa aplikatzearen ondorioz Nafarroan erlijio irakasgaiaren ordu-beharrak aldatzen badira, horrek ezin izanen die ekarri lanpostua galtzerik, ezta beren kontratuetako portzentajeak murrizterik ere, foru lege honek indarra hartzen duen egunean Nafarroan lan-kontratu mugagabea duten erlijio irakasleei.

Hori guztia ezertan galarazi gabe Hezkuntza Administrazioaren ahalmena, irakasle horien ira-

kaskuntza-jarduna beren gaur egungo lanpostu eta destinoei dagokienez antolatzea.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2022-2023 ikasturteak aurrera aplikatuko da.

---

**Foru Lege proposamena, Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adieraztekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, María Virginia Magdaleno Alegría andreak (Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa), Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezkerreko Ezkerreko talde parlamentario mistoak aurkeztu dute Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko Foru Lege proposamena, eta preako prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute (10-22/PRO-00012).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

**1.** Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Aipatu foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proposamena,  
Eliza Katolikoaren barnean Nafarro-  
an gertatutako sexu-abusuen biktimei  
errekonozimendua adieraztekoa**

**ZIOEN AZALPENA**

**ATARIKO TITULUA.** Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea eta helburua.
2. artikulua. Aplikazio-eremua.
3. artikulua. Jarduteko printzipioak.

**LEHEN TITULUA.** Pertsona bat biktima dela adieraztea.

4. artikulua. Pertsona bat biktima dela eta errekonozimendu publikorako eskubidea duela adieraztea.
5. artikulua. Lege honen xede direnen betebeharrak.
6. artikulua. Baldintzak ez betetzea.

**BIGARREN TITULUA.** Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoen biktimen errekonozimendurako batzordea.

7. artikulua. Sortzea.
8. artikulua. Osaera.
9. artikulua. Izendapena eta karguaz jabetzea.
10. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.
11. artikulua. Jardueren oroitidazkia.
12. artikulua. Errekonozimendurako Batzordearen jarduteko printzipioak.

**HIRUGARREN TITULUA.** Pertsona bat biktima dela adierazteko prozedura.

13. artikulua. Prozedura hastea.
14. artikulua. Prozeduraren instrukzioa.
15. artikulua. Eskaerak ebaztea.

**LAUGARREN TITULUA.** Biktimei laguntzea eta sustapen-neurriak.

16. artikulua. Informazio-bulegoak.
17. artikulua. Justizia errestauratiboa.
18. artikulua. Laguntza-neurriak.
19. artikulua. Hedapena bultzatzea.
20. artikulua. Biktimen eta beren ordezkaritza-taldeen egitekoaren errekonozimendua.

Lehen xedapen gehigarria. Errekonozimendurako Batzordea eratzea.

Bigarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalak babestea.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

**ZIOEN AZALPENA**

I

Nafarroako gizarteak lehen ere lege-errekonozimendu baten bidez adierazia du bakean eta demokrazian bizitzeko ezinbestekoak direla giza eskubideen urratze larriak jasan dituzten biktimen duintasuna aldarrikatzea eta erreparazio integrala eskaintzea, baldin eta arrazoi historikoak edo sozialak direla-eta egiarako, memoriarako eta justiziarako eskubideak bermatu ez bazaizkie. Estatuak ezin dio itzuri egin erreparazio horri, eta horri erantzuteko onetsi zen 33/2013 Foru Legea (16/2018 Foru Legeak aldatu duena), abiaburuztat 24/2003 Foru Legea eduki zuena. Ildo beretik doa 29/2018 Foru Legea, Nafarroako memoria historikoaren tokiei buruzkoa. Azkena martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea izan da, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

Errekonozimendu falta bera pairatu dute sexu-abusu batzuen biktimek ere, hain zuzen ere abusuak ingurune hetsietan gertatu eta horregatik behar zenean sistema penalak erantzunik eman zien biktimek. Jokabide horien aurrean isilik gelditzea eta egileen inpunitatea are larriagoak dira gizartearentzat abusuak familian, kirolean, erlijio-giroan edo hezkuntza-arloan gertatzen direnean, ingurune horiek guztiak oso garrantzitsuak baitira pertsonen sozializatorako; gainera, adingabeak zaurgarriagoak izaten dira esparru horietan, beren baloreak eratzen aritzen baitira, eta biktimizazioa eragiten duen gertaerak ondorio larriak edukitzen ditu.

Esparru horietako batean, erlijioarenean, Nafarroan urrats batzuk egin dira biktimen memoria sustatzeko, haien oinazea onartzeko, eta erreparazioa emateko. Dena dela, hastapenetan gara oraindik. 2019ko urrian, Nafarroako Sexu-abusuen Biktimen Elkarteko bost biktima Parlamentuan izan ziren, eta han, ateak itxita, beren lekukotzak eman zituzten. Hilabete geroago, biktimek berek lekukotzak plazaratzeko eskatu ondoren (egia, justizia eta egindako kaltearen erreparazioa alda-

rrikatu nahi baitzituzten), Nafarroako Parlamentuak jendaurrean hedatu zuten haiek adierazitakoa.

Azkenik, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren txostena aurkeztu zuen (2022ko otsailean plazaratutakoa). Bertan 52 biktima agertzen ziren eta 31 ustezko biktimagile, eta agerian jartzen zen arazoa bazegoela, larria zela, eta erakundeek esku hartu behar zutela, hots, berariaz eraturako batzorde independente baten bidez biktima horien errekonozimendurako eskubidea arautuko zuen foru legea onetsi behar zela.

## II

Administrazio publikoek giza eskubideen urratze masiboen aurrean esku hartu beharra nazioartean hitzartutako eta ohiturazko arauen ondoriozkoa da, eta erraz sartzen da nazioarteko zuzenbide publikoaren doktrina orokorrean, nazioarteko zenbait erakunde eta tresnaren jarduran eta garapenean, eta giza eskubideen inguruko itunen aplikazioa gainbegiratzen duten organo juridikzional edo kuasijurisdikzionalen jurisprudentzian.

Giza eskubideak urratu zaizkien biktimei erreparazioa eman beharra dute Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna eta Torturaren eta beste Tratu edo Zigor Anker, Gizagabe edo Apalesgarrien aurkako Nazio Batuen Hitzarmena sinatu dituzten estatuak, erga omnes behartzen dituzten nazioarteko ordena publikoko arauak baitira. Espainia estatu horietakoa dugu.

Ez da aiantzi behar ezen, Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikulua dela bide, oinarritzko eskubideen gorputz juridikoa beti interpretatu behar dela Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta Espainiako giza eskubideen inguruan berretsitako nazioarteko itunen eta akordioen arabera. Beraz, botere publikoek inolako ezbaierik ez luzamendurik gabe babestu behar dituzte oinarritzko eskubide hauek, eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiaren doktrinaren esparruan bermatu behar dira, batez ere pertsonen bizitza eta osotasuna babesteko jurisprudentziaren esparruan.

Horrenbestez, giza eskubideen urratze larriak jasaten dituzten biktimen arretarako nazioarteko estandarrak bat datoz Europakoekin, batez ere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentarauarekin; Espainian, zuzentarau hori Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legearen bidez garatu da.

Lege honen aplikazio-eremuaren barruan, xede nagusia (bakarra ez baina) sexu-indarkeria da, pertsonen osotasun fisikoari, moralari eta psikologikoari kalte egiten diena. Osasunaren Mundu Erakundearen 2002ko definizioaren arabera, honako hauek guztiak sexu-indarkeriak dira: pertsona baten adostasunik gabe egiten diren sexu-egintza guztiak eta sexu-egintzak egiteko ahalegin guztiak, nahi ez duenari sexuaz egiten zaizkion ohar eta intsinuazioak, eta pertsona baten sexualitatea merkaturatzeko edo erabiltzeko egiten diren hertsapen-ekintzak, biktimarekiko erlazioa gorabehera, eremu guztietan, etxea eta lantokia barne. Haurrak Sexu-esplotaziotik eta Sexu-abusuetatik Babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak (Lanzaroteko Hitzarmena esaten zaionak) honela arautzen du zer den sexu-abusua 18. artikuluan:

a) Sexu-jarduerak egitea nazioarteko zuzenbideko xedapen aplikagarrien arabera horretarako legeko adinera heldu ez den hau batekin;

b) Haur batekin sexu-jarduerak egitea hertsapenaz, indarraz edo mehatuez baliatuz, edo haurraren onustez edo haren gaineko aginteaz edo eraginaz baliatuz, are familia barruan ere, edo haurraren zaurgarritasun bereziaz baliatuz, batez ere desgaitasun psikikoaz edo adimen-desgaitasunaz edo mendekotasunaz.

Halaber, kontuan eduki behar da Estatuan oraintsu aldarrikatu dela Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa. Lege horren helburua da haurren eta nerabeen osotasun fisikorako, psikorako, psikologikorako eta moralerako oinarritzko eskubideak bermatzea indarkeria mota guztien aurrean, beren nortasuna askatasunarekin garatzeko aukera eduki dezaten, eta haiek bizitzako esparru guztietan babesteko neurri integralak ezartzea, honako hauek kontuan hartuz: arazoaz ohartzea, prebentzioa, arin antzematea, babestea eta kalteak konpontzea. Lege honen xedean sexu-indarkeria lantzen da. Horrela behin betiko sendotzen da administrazio publikoek indarkeria hori saihesteko hartutako konpromisoa.

## III

Beraz, foru lege honen bidez estatutu berezia eman nahi zaie biktima horiei guztiei, giza eskubideak urratu dizkietelako Eliza Katolikoak halako urratzerik ez gertatzea bermatu behar zuen tokietan, urratzeak ez baitira onartu eta biktimei ez baitzaie erreparaziorik eman indarreko legeriaren arabera.

Honelako delituen ezaugarri berezietako bat da abusuak intimitatean gertatzen direla eta,



horregatik, oso zaila dela detektatzea. Gauza jakina da elizgizonek egiten dituzten sexu-abusuetako gutxi salatzen direla. Hori egiaztatuta geratu da beste herrialde batzuetan: kasurik larrienen artean, luze jo du gertaerak jendaurrean agertu arte. Kasu askotan biktimek ez dute salaketarik jartzen, beldur izaten baitira gaitzetsiko ote dituzten. Gainera, tabuak, lotsak eta biktimagileekiko induljentziak ere arazoa luzarazi dute, inolako zalantzarik gabe.

Halaber, biktimagileak direla-eta, apaizek, kongregaziokideek eta ordena erlijiosoetako kideek, eta Elizaren titulartasuneko entitateetan edo hark kudeatzen dituen entitateetan lan egiten duten laikoek egindako biktimizazio guztiak hartzen dira kontuan.

#### IV

Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko foru lege honen egitura honelako da: atariko titulua eta lau titulu.

Atariko tituluan xedapen orokorrak biltzen dira. Foru legearen xedea eta helburua direla-eta, Eliza Katolikoaren barnean, beraren itzalpean edo berak egindako jardueretan Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasan dutenak biktimatzat jotzeko eskubidea arautzen da, egin zaien kalteaz ohartarazteko, bakoitzaren eta taldearen errekonozimendua sustatzeko, eta giza eskubideei eta elkarbizitza demokratikoari zor zaien errespetua hedatzeko. Aplikazio-eremua Nafarroako Foru Komunitatea da, Justizia Administrazioaren jardutako mekanismoen bidez ez errekonozimendurik ez erreparaziorik lortu ez duten biktimentzat. Eremu subjektiboan eskubideak urratu dizkiotela adierazten duten pertsonak daude. Nolanahi ere, norbait hilez gero, ezkontideak eta hurkoak ere legitimatuta egonen dira. Titulu honen amaieran jarduteko printzipioak ezartzen dira, eta horietan aipatu beharrekoa da beharrezkoa dela Administrazioak zorrotasun handiarekin dokumentatzea zer gertatu den, biktimen errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzeko, abiaburutzat hartuta haien alde egitea, zeren eta, azken finean, berak baitaude legegintzaren ardatzean. Horrez gainera, honako printzipio hauek ere ezartzen dira: azkartasuna, erakundeen arteko lankidetzatza (beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun ahal izateko), eskubideak bermatzea, eta subsidiarotasuna ekintza penalaren aurrean.

Lehen tituluan biktimatzat jotzeko eskubidea arautzen da, eta ezartzen da biktimek intimitaterako eskubidea dutela berek nahi dutenean. 5. eta 6. artikuluetan arautzen dira legearen onura jaso-

ko duten pertsonen betebeharrak eta horiek ez betetzeak ekarriko dituen ondorioak.

Bigarren tituluan Errekonozimendurako Batzordea jorratzen da: sorkuntza eta osaera arautzen dira. Osaeran aipatu behar da teknikari adituez gainera biktimak eta Eliza Katolikoak hitza eta botoa edukiko ditu, ahalik gehien lagundu dezan egiara iristeko bidean. Batzordearen indarraldia sei urtekoa izanen da. Egoera jakin batzuetan, arrazoiak azalduta, beste horrenbeste luzatu ahal izanen da. Batzordearen idazkaria Biktimei Laguntzeko Bulegoko atalburua izanen da. Honek batzordearen jardunaren oinarrian dagoen administrazio-organoaren eta batzordearen beraren arteko koordinaziorako lanak egiten ditu. Batzordeko burua batzordekideen artean hautatuko da, eta hauek modu pluralean hautatuko dira. Batzordekideek adituen laguntza eduki ahal izanen dute beharrezkotzat jotzen denean.

Batzordearen egitekoak honako hauek izanen dira: behar den kasuetan pertsona biktima dela adieraztea, batetik, eta urteko jardueren oroitidazkia egitea, bestetik, herritarrek gertatutakoaren berri eduki dezaten. Oroitidazkiak Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dira, eta Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiaren Atarian plazaratuko ditu. Horrez gainera, batzordearen barneko jarduna arautzen da: deialdiak, aldizkako bilerak, eta erabakiak hartzeko modua. Foru legean arautzen ez den guztirako osagarri gisa ezartzen da Araubide Juridikoaren Legean kide anitzeko organoek arautzen dena aplikatuko dela. Jarduteko printzipioak direla-eta, berriz ere erakundeen arteko lankidetzatza aipatzen da, bai eta hirugarren pertsonen eskubideen bermea, eta subsidiarotasuna prozedura penalaren aurrean, epaileen eta auzitegien zigor-arloko jurisdikzio eskusiboa errespetatzeko.

Horrela, memoriarako eskubidea arautzen da; horren bidez Eliza Katolikoaren barnean gertatu diren sexu-abusuak balidatzen eta gizarteratzen dira, eta esanahi berria ematen zaie. Horrenbestez, politikaren, erakundeen eta gizartearen aldeetatik dauzkagun erantzukizunak onartzen ditugu, eta errekonozimenduaren bidez aurre egiten diegu ahanzturaren apologiari, gizartearen amnesiari, distantziakidetasunei, estaltzei eta gertaera horiek justifikatu eta ukatu dituzten "errebisionismo" eta "negazionismo" mota guztiei, eta indiferentziaren eta errelatibismo-erakustaldien kontra egiten dugu, abusuak pairatu dituztenak berriz ere biktimizazioa jasan ez dezaten. Asmoa da herritarren oroimen kolektiboan gordetzea Eliza Katolikoaren kideek egindako sexu-abusuen oroitzapena, jakinik oraintsura arte gertaera horiek

ezkutuan eduki direla eta herritar gehienek ez zutela haien berri.

Izan ere, biktimagileek gertatutakoaren inguruko beren bertsioa finkatu nahi izan dute historian, oroimen kolektiboan eta egunerokotasunean itsatsita gelditu dadin bortxazko ahanzturaren eraginez. Orain erakundeak buru-belarri ari dira asmo horren kontra.

Horren aurrean, foru lege honek egiarako, justiziarako, memoriarako eta erreparaziorako esku-bideak aitortzen dizkie Eliza Katolikoaren esparruan egindako sexu-abusuen biktimei, alde batera utzita urratze horien egilea identifikatu, atxilotu, epaitu edo kondenatu duten ala ez, eta gertaeren gaineko erruduntasun erlazio zehatza ezarri beharrik izan gabe. Era horretan, legean dute oihartzuna, berriz ere, hala biktimen kolektiboan aldarrikapenek nola nazioarteko hainbat erakunderen eta adituren gomendioek.

Biktimen kolektibo horri babesa emanen zaio aintzat harturik preskripzioaren datua; izan ere, estaldura eman zaie preskribaturik egoteagatik zor zitzaizkien errekonozimendua eta erreparazioa jaso ez dituzten kasuei, oraindik ere auzitegietara eramán daitezkeen auzietan esku sartzea saihestuz.

Hirugarren tituluan arautzen da nola eskatu behar duten abusuak jasan dituzten herritarrek biktimatzen jotzeko. Azken batean, izapideak has-teko mekanismo arin bat bermatzen da, gehiegizko betekizun burokratikorik gabekoa, eta norbaiti biktima izatea aitortzeko egin beharreko ikerketa azkar eta eraginkorra eragotzi edo oztopatu dezaketen hesiak eta zailtasunak ezabatzen dira, jarduketak ez baitira zigorra edo zehapena ezartzekoak.

Errekonozimendurako Batzordearen jardueren euskarri administratiboa Biktimen Arretarako Bulegoaren barnean antolatzea aukeratu da; batzorde horrek agintzen ahalko du ikerketarako eta espedientearen instrukziorako jarduerak egin daitezela, eskatzaileak ekarritako informazioa egiaztatzeko, aurrekari, datu edo txostenak eskatzeko, lekukotasunak eskatzeko edo, laburbilduz, gertaerak hobeki argitzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egiteko. Batzordeak erabakitzen ahalko du eskaerak ez onartzea edo, arrazoiak azalduta, norbait biktima dela deklaratzeko proposatzea edo deklarazio hori ukatzea. Justiziaren arloan esku-menak dituen departamentuko titularraren ebazpen baten bidez eginen da deklarazioa, eta gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahalko da Nafarroako Gobernuaren aurrean, administrazio bideari amaiera emanaz. Isiltasuna ezezkoa izanen da.

Hala ere, prozedura osoan aginduzko epeak izanen dira eta modu arrazoituan baino ezin izanen dira luzatu. Administrazioak ezin izanen du inola ere saihestu ebazteko betebeharra.

Laugarren tituluan arautzen da nola emanen zaien laguntza biktimei eta nolako sustapen-neurriak ezarriko diren. Biktimei informazioa emateko ardura Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoari esleitzen zaio. Horretan bere arautegiarekin bat etorritik jardun beharko du. Biktimek eskatuta, Justizia Departamentuak foru legearen helburuak eta xedeak lortzeko egokitzat jotzen diren justizia erreparatiboaren mekanismoak ezartzen ahalko ditu. Horren oinarriak honako hauek dira: oroime-nerako eskubidea eta Estatuak eta gizarteak oroitutako beharra.

Justizia erreparatiboaren mekanismoak biktimei eskubideei buruzko 2012/29/EB Zuzentzarauan arautzen dira. Horien bidez biktimek onura agerikoak jasotzen ahal dituzte: begirunezko tratamendua, banakakoa eta profesionala; informazio erabilgarria erreakzionatzeko eta jasandako kalte-etatik suspertzeko, eta behar denean prozedura judizialari aurre egiteko; hobeki erabakitzeko informazioa; beren segurtasuna eta duintasuna babesten dira, bai eta beren ahaideenak ere; berriz biktimizatzeko, beldurrarazteko edo errepresaliak jasotzeko arriskua murrizten da; konfiantza handiagoa dute erakundeetan. Horrela beste era bateko justizia sustatzen da: zigorra ezarri baizik egiten ez duen justiziatik justizia erreparatibora pasatuko gara. Biktimak sistemaren erdigunean jartzen dituen justizia. Nazioarteko zuzenbidean, justiziaren kontzeptu honen oinarrian Erromako Estatutua dago, besteak beste. Horren arabera biktimei erreparazioa eman behar zaie, eta horren barnean honako hauek sartzen dira: errestitutzioa, kalte-ordaina eta errehabilitazioa.

Beraz, justiziarako eskubidea (modu poliedrikoan ulertuta) bermatzeko asmoarekin, eta inpunitatearen kontra egiteko, lege honen bidez Komunitateak biktimen esku jartzen ditu orain arte jasan behar izan dituzten egiturazko injustiziak arintzeko behar diren baliabideak eta prestazioak.

Hara zer dioten Giza Eskubideen Batzordeak "Inpunitatearen aurka borrokatuz giza eskubideak babesteko printzipioak" (18. printzipioa): "Inpunitatea da estatuak dituzten honako betebeharrak hauek urratzea: bortxaketak ikertu beharra; egileei dago-kienez neurri egokiak ezarri beharra, batez ere justiziaren arloan, auziperatzeko, epaitzeko eta zigor egokiak jartzeko; biktimei baliabide eraginkor-rrak eta jasandako kaltearen ordaina eman beharra; bortxaketak berriz ez gertatzeko behar diren neurriak ezarri beharra".



Titulu honek ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari biktimei laguntzeko neurriak ezartzeko eta gertaerak modu zientifikoan ikertzea eta haien berri zabaltzea sustatzeko.

Tituluaren amaieran azaltzen da biktimek eta haien ordezkariak zeregin garrantzitsua dutela, eta ezartzen da haiekin nahitaez hitz egin behar dela eragiten dieten xedapen guztiei burua horretarako berariaz eraturako parte hartzeko mekanismo egokien bitartez.

Lehenbiziko xedapen gehigarrian ezartzen da Errekonozimendurako Batzordea eratuko dela kideak izendatzen direnetik hilabete iragan baino lehen.

Bigarren xedapen gehigarrian datu pertsonalen babesa arautzen da, eta biktimak babesteko neurri batzuk ezartzen dira, pertsonen intimitaterako eskubidea zaindu nahian. Hain zuzen ere, aukerarik dauden segurtasun-neurri zorrotzenak ezartzen dira biktimen askatasuna, intimitatea eta duintasuna sustatzeko.

Amaitzeko, azken xedapenetako lehenak ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari foru lege hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko. Azken xedapenetako bigarrenak arautzen du legea Nafarroako Foru Komunitateko Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

## **ATARIKO TITULUA** **Xedapen orokorrak**

### **1. artikulua.** Xedea eta helburua.

1. Foru lege honen helburua da arautzea Eliza Katolikoaren barnean, beraren itzalpean edo berak egindako jardueretan Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasan duten pertsonak biktimatzat jotzeko eskubidea. Horrez gainera, arautzen da nola argitu behar diren gertaerak, eta nolako ondorioak izanen dituzten.

2. Zehatzago, honako hauek dira lege honen xedeak:

- Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasanik giza eskubideak urratu dizkieten biktimek pairatu duten kaltea onartzea eta pertsona horiei erreparazioa ematea.

- Biktimen errekonozimendua eta arreta bultzatzea, banaka zein taldean. Hain zuzen ere, oroi-men kolektibo, demokratiko eta kritikoa eratzea,

biktimen ahotsa biltzen duena eta elkarrizketa sustatzen duena.

- Giza eskubideekiko errespetua hedatzen laguntzea, elkarbizitza demokratikora beharrezkoak diren zutabe sendoak eraikitzeko.

### **2. artikulua.** Aplikazio-eremua.

1. Foru lege honetan arautzen da nola emanen zaizkien errekonozimendua eta laguntza Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasanik giza eskubideak urratu dizkieten biktimei, hain zuzen ere Justizia Administrazioaren jarduteko mekanismoen bitartez halakorik jaso ez dutenei.

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak bere jardunean epaitegi eta auzitegi eskudunen zigor-arloko jurisdikzio eskusiboa errespeta-tuko du beti.

2. Foru lege honen eremu subjektiboan honako hauek daude: Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasanik giza eskubideak urratu dizkietela adierazten duten pertsonak, hain zuzen ere erakundeek biktimatzat jo ez dituztenak.

Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan abusuak jasan dituen pertsona bat hilez gero, honako hauek eskatzen ahalko dute hura biktima dela adierazteko:

a) Zendutakoaren ezkontideak, legalki bananduta egon ez badira, bikotekide iraunkorrak edo heriotza-unearen aurreko bi urteetan harekin ezkontzaren antzeko afektibitate-harremenez elkarturik modu iraunkorrean bizi izandako pertsonak (haurrik izan badute, aski izanen da elkarbizitza soila), eta seme-alabek.

b) Hildakoaren aitak eta amak, bilobek, senideek eta aitona-amonek.

Lege honetan arautzen diren eskubide-urrazteak pairatu dituen pertsona bat hiltzen bada biktima-errekonozimendurako prozedura hasi ondoren, aurreko paragrafoan azaltzen diren pertsonak aurrera egin ahal izanen dute prozedurarekin. Bestela, prozedura amaituko da, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean administrazio-prozedura gerora sortutako arrazoiengatik amaitzeaz ezartzen denarekin bat etorritik.

3. Lurralde-eremuaz denaz bezainbatean, foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatean Eliza Katolikoaren barnean gertatu diren sexu-abusuen biktimei aplikatuko zaie.

**3. artikulua.** Jarduteko printzipioak.

1. Biktimekiko elkartasuna printzipioan oinarrituta, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak neurri egokiak ezarriko ditu helburu hauek lortzeko:

a) Lege honen esparruaren barnean, aurkeztu diren kasuetan gertatutako giza eskubideen urratzeak ahalik zorrotzen eta zehatzen dokumentatzea, eta ahalik modurik koherenteenean, kontuan hartuz kasu bakoitza berezia dela eta gertaeren artean desberdintasun handiak daudela.

b) Lege honetan arautzen diren giza eskubideen urratzeen biktimen errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzea, ezagunak izan daitezkeen eta erreparazio morala emateko.

2. Prozeduren instrukzioan eta ebazpenean honako printzipio hauek aplikatuko dira:

a) Biktimen aldeko tratua printzipioa. Kontuan hartuko da haiek zaugarritasun eta desparekotasun berezian daudenez, eta behar dena eginen da prozedurak ez dezan sor prozesu traumatiko gehigarriak.

b) Azkartasunaren printzipioa, eskubideen aitortzea eta erreparazioa beharrik gabe luzatzen edo zailtzen dituzten izapide formalak saihestuz.

c) Erakundeen arteko lankidetzaren printzipioa, erakunde publikoek eskatzen zaizkien datu guztiak eman ditzaten garaiz eta behar bezala, eta espedienteak ebazten lagundu dezaten.

d) Hirugarrenen eskubideen bermearen printzipioa. Honen arabera espedienteetan agertzen diren hirugarren pertsonen ohorerako eskubidea, irudirako eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubidea babestu behar dira. Espediente batean agertzeak ezin ditu inolaz ere eragotzi ez urratu pertsona horien berme juridikoak eta konstituzionalak.

e) Prozedura administratiboa prozedura penaren subsidiarioa delako printzipioa. Foru lege honetan ezartzen den prozedura administratiboa ez du zigor-xederik, eta berme osoz errespetatzen ditu abstentzioaren, konkurrentziaren eta ebazpen judizialekiko loturaren eginbehar eta betebeharrak.

**LEHEN TITULUA****Pertsona bat biktima dela adieraztea**

**4. artikulua.** Pertsona bat biktima dela eta errekonozimendu publikorako eskubidea duela adieraztea.

Foru lege honen ondorioetarako, adierazten bada pertsona bat Eliza Katolikoaren barnean edo berak egindako jardueretan Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasan duela eta horren biktima dela, pertsona horrek eskubidea edukiko du biktima-errekonozimendu publikorako.

Errekonozimendu publiko horrek bateragarria izan beharko du biktimak bere intimitatea gordetzeko daukan eskubidearekin, berariaz eskatuz gero. Beraz, biktimak eskatu ahal izanen du errekonozimenduaren barri ez zabaltzeko eta inori ez jakinarazteko.

**5. artikulua.** Lege honen xede direnen betebeharrak.

Giza eskubideen urratzeen biktimaren errekonozimendua eduki nahi duten pertsonak honako hauek egin beharko dituzte:

a) Onartu beharko dute foru lege honen II. tituluaren arautzen den Errekonozimendurako Batzordeak noiznahi egiaztatzea aurkeztutako datuak eta dokumentuak, eta biktimaren errekonozimendua ebazteko eskatzen duen informazio guztia eman beharko diote.

b) Arautegian onuraduna izateko ezartzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bai eta ezartzen diren betebeharrak ere.

c) Gertaerak argitzeko behar diren egiaztapekin eta kontrolak onartu beharko dituzte.

**6. artikulua.** Baldintzak ez betetzea.

Lege honetan ezartzen dena ez betetzeak edo datu faltsuak aurkezteak biktimaren errekonozimendua galtzea ekarriko du. Ebazpena errekonozimendurako eskumena daukan organoak eman go du, bidezko espediente egin eta interesdunak entzun ondoren, sei hilabete iragan baino lehen.

**BIGARREN TITULUA****Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoen biktimen errekonozimendurako batzordea**

**7. artikulua.** Sortzea.

1. Errekonozimendurako Batzordea sortzen da, kide anitzeko organo independente gisa. Honako eginkizun hauek izanen ditu: aurkeztutako eskaerak baloratzea eta, foru lege honen babesean, onar daitezkeen edo bazter daitezkeen proposatzea; eta, bidezkoa denean, pertsona bat Eliza Katolikoaren barnean, Nafarroan, sexu-abusuen biktima izan dela adieraztea. Batzordearen indarraldia 6 urtekoa izanen da. Nolanahi ere, beste horrenbeste

te luzatu ahal izanen da Nafarroako Gobernuan justiziaren arloko eskumena daukan departamentuko titularraren foru agindu baten bitartez, horretara bultzatzen duten inguruabarrak gertatuz gero (arrazoitu behar dira).

2. Errekonozimendurako Batzordea Nafarroako Gobernuko justiziaren arloko eskumena daukan departamentuari atxikiko zaio organikoki, eta foru lege honek esleitzen dizkion eginkizunak betetzeari autonomia eta independentzia osoz jardunen du, eta emandako eginkizunak objektibotasunez, profesionaltasunez, inpartzialtasunez, konfidentzialtasunez eta ordenamendu juridikoa errespetatuz bete beharko ditu.

3. Errekonozimendurako Batzordeak esleitzen zaizkion eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar diren baliabide ekonomiko, material eta pertsonal egokiak eduki beharko ditu. Nafarroako Gobernuak bermatuko ditu baliabide horiek.

#### **8. artikulua.** Osaera.

1. Errekonozimendurako Batzordean bederatzi kide ariko dira. Sei urterako izendatuko dira, eta berriz hautatu ahal izanen dituzte Batzorderako. Hona:

a) Nafarroako Biktimei Laguntzeko Bulegoaren atalburua. Idazkaria izanen da.

b) Biktimen arloko esperientzia dute lau pertsona. Horien artean historian, zuzenbidean eta psikologian adituak egon behar dira nahitaez. Lau pertsona horietako bi Nafarroako Gobernuko Justizia Departamentuaren titularrak proposatuko ditu, eta beste biak Nafarroako Parlamentuak. Batzordean aritzeko izendatzen diren pertsonen ezin izanen zaie utzarazi kargua, beren betebeharrak modu larrian betetzen ez badituzte; halako ez betetzea gertatuz gero, ebazpen arazoitua beharko da kargua utzarazteko, interesduna entzun ondoren.

c) Nafarroako Eliza Katolikoak proposatutako bi pertsona.

d) Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan sexu-abusuen biktima izan diren pertsonen elkarrekin, indarreko legeriaren arabera eratutakoek, proposatutako bi pertsona.

2. Erabakitzen den kasuetan Errekonozimendurako Batzordeak lege honen xede diren osotasun fisikorako, ukigabetasunerako eta sexu-askatasunerako eskubideen urratzeak frogatzeko beharrezkotzat jotzen diren adituak eskatu ahal izanen ditu. Aditu horiek batzordeko buruaren zuzendaritzapean eginen dute balorazio, analisi eta azterketa lana.

3. Eraketa bilkuran hautatuko da Errekonozimendurako Batzordeko burua, batzordeko kideen artean, gehiengo soilez.

#### **9. artikulua.** Izendapena eta karguaz jabetzea.

1. Justiziaren arloko eskumena daukan Nafarroako Gobernuko departamentuaren titularrak emandako foru aginduaren bidez izendatuko dira aurreko artikuluan ezartzen den bezala hautatuko diren Errekonozimendurako Batzordeko kideak.

2. Izendatutako pertsonen izendatzea argitara ematen den egunetik ondoko hogeita hamar egun naturalen barruan hartuko dute beren karguen jabetza.

#### **10. artikulua.** Antolaketa eta funtzionamendua.

1. Errekonozimendurako Batzordearen eraketa baliozkoa izan dadin, bilkura eta eztabaidak egin eta erabakiak hartzeari dagokionez, beharrezkoa izanen da haren kideen erdiak bertaratuta egotea, gutxienez ere. Erabakiak hartuko dira bertaratzen diren kideen gehiengoaren botoaz. Berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuaren kalitatezko botoa izanen da erabakigarri.

Errekonozimendurako Batzordeko kideek eskatu ahalko dute aktan jaso dadila hartutako erabaki baten aurka eman duten botoa, edo alde eman duten botoaren zentzua. Halaber, kideren bat gehiengoak hartutako erabakiarekin ados ez dagoenean, boto partikular bat aurkeztu ahalko du idatziz, erabakia hartu eta bi eguneko epean, eta hura testu onetsiari gehituko zaio.

2. Errekonozimendurako Batzordeari dagokio barneko funtzionamendu arauak onestea, eta horiek osatzen ahalko dira bat etorri sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko legeriak kide anitzeko organoari dagokienez ezartzen duenarekin.

Nolanahi ere, Errekonozimendurako Batzordeak hilean behin gutxienez eginen du ohiko bilkura.

Salbuespen gisa batzordeburuaren ekimenez biltzen ahalko da, edo kideen erdiek eskatuta, gutxienez ere. Berariazko deialdia egin beharko da bi egun baliodun lehenago, gutxienez. Edonola ere, eraketa baliozkoa izan dadin, kideen erdiak bildu beharko dira, gutxienez, tartean batzordeburua eta idazkaria direla.

3. Bere eginkizunetan jardutean, Errekonozimendurako Batzordeak aintzat hartuko ditu genero-ikuspegia, LGTBI kolektiboa eta beste talde zaugarri batzuk.

**11. artikulua.** Jardueren urteko oroitidazkia eta amaierako oroitidazkia.

1. Errekonozimendurako Batzordeak urtero oroitidazki bat eginen du eta bertan jasoko ditu egin zaizkion eskaerak, egin dituen lanen emaitzak, espedienteen egoera eta eman dituen ebazpen-proposamenak. Urteko oroitidazkiak batzordearen agintaldiaren amaieran eginen den oroitidazkiari erantsiko zaizkio.

2. Urteko oroitidazkiak eta amaierako oroitidazkia Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu ditu justiziaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak, eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko ditu, justiziaren arloan eskumena duen Parlamentuko batzordearen aurrean.

Halaber, justiziaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak oroitidazki hori bidaliko die hala eskatzen duten erakunde publikoei, beren xedeak betetzeko erabil dezaten, administrazioen arteko lankidetzeta leialaren printzipioari jarraituz.

**12. artikulua.** Errekonozimendurako Batzordearen jarduteko printzipioak.

Batzordearen jardunbidean bereziki kontuan hartzeko printzipioak izanen dira honako hauek:

1. Erakundeen arteko lankidetzaren printzipioa, erakunde eta entitate publiko nahiz pribatuek eskatzen zaizkien datu guztiak eman ditzaten garaiz eta behar bezala, eta espedienteak ebazteko behar den laguntza eman dezaten bai agintariek bai haien zerbitzuan ari diren teknikariek.

2. Hirugarrenen eskubideak bermatzearen printzipioa. Foru lege honen babesean izapidetutako espediente administratiboek ez dute inolaz ere ekarriko hirugarrenen berme juridiko eta konstituzionalen aurkako urraketarik edo erasaterik.

3. Prozedura administratiboa prozedura penaren subsidiarioa delako printzipioa. Foru lege honetan ezarritako prozedura administratiboak ez du zigor-xederik, eta berme osoz errespetatzen ditu abstentzioaren, konkurrentziaren eta ebazpen judizialekiko loturaren eginbehar eta betebeharrak. Edonola ere, Errekonozimendurako Batzordeak uste badu espediente irekitzetik ondorioztatu daitekeela zigortzeko moduko jarduketaren bat, organo judizialei jakinaraziko die eta horren berri emanen dio eskumena duen administrazioari, eta ez du prozeduran aurrera eginen hura behin betiko ebatzi arte.

## **HIRUGARREN TITULUA** **Pertsona bat biktima dela** **adierazteko prozedura**

**13. artikulua.** Prozedura hastea.

1. Eliza Katolikoaren barnean edo hark egiten dituen jardueretan Nafarroan abusuak jasan dituzten pertsonak biktimatzat jotzeko prozedura horretarako eskaera aurkezten denean hasiko da. Eskaera lege honen eremu subjektiboko pertsonak aurkeztu ahal izanen dute Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legerian arautzen den bezala.

2. Eskabidean egitateen deskribapen zehatza jaso behar da, eta, harekin batera, egokitzat jotzen diren dokumentu edo txosten guztiak aurkeztu ahalko dira; hala ere, hori ez da eragozpena izanen Batzordeak haiek dokumentatu eta egiaztatzeko egin ditzakeen jarduketa eta zuzementarako.

**14. artikulua.** Prozeduraren instrukzioa.

1. Eskabidea eta erantsi beharreko agiriak jaso ondoren, espediente izapidetzeko eskumena duen organoak lege honen II. tituluaren arautzen den Errekonozimendurako Batzordeari igorriko dio espedienteak.

2. Errekonozimendurako Batzordeari dagokio arrazoiak emanda proposatzea eskaerak ez daitezke izapidetzeko onartu, haiek igorri eta hilabeteko gehieneko epean, bai eta onartutako eskaerak aztertzea eta, arrazoiak emanda, biktima-izaeraren deklarazioaren proposamena onartzea edo aurkeztutako eskaera ukatzea ere.

3. Behin eskabidea izapidetzeko onartuta, Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko eta egokitzat jotzen duen guztietan, honako jarduketa hauetakoren bat egin ahalko du:

a) Eskatzaileari entzun, aurkeztu dituen dokumentu eta frogei buruzko informazioa osoagotzeko. Horretarako, eta biktimak aukeratutako entzute modua errespetatuz, elkarrizketa baterako hitzordua jarri ahalko dio eskatzaileari, eta batzordeko idazkariak horren akta eginen du egokitzat jotzen diren baliabide teknikoak erabiliz.

b) Espedienteak izapidetzeko beharrezko izan daitezkeen aurrekari, datu edo txostenak eskatu beste administrazio publiko, entitate edo organo pribatu zein publiko batzuei, betiere datu pertsonalen babesari buruzko legeria indardunean finkatutako mugen barruan.

c) Egitateen zuzeneko nahiz zeharkako ezagutzarengatik edo arloan duten esperientziarengatik

eskabideari buruz informazio garrantzitsua eman dezaketen pertsonen txostena edo lekukotasuna eskatu.

d) Egitateak modurik onenean argitzeko eta aurkeztutako eskabidea hobeki ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak egin.

4. Errekonozimendurako Batzordeak jakiten duenean irekitako kausa judizialak badaudela, espedienteak ebaztearen ardura duen organoak eten egiten du prozeduraren izapidetzea bide judiziala agortu arte. Etete bera gertatuko da irekitako zehapen-prozedura administratiborik badagoela jakiten denean, harik eta haiek bide administratiboan irmoak izan arte.

#### **15. artikulua.** Eskaerak ebaztea.

1. Espedientean jasotako dokumentazioa eta gainerako frogabideak aztertu ondoren, aurkeztutako eskabide bakoitzari buruzko txosten arrazoitu bat egiten du Errekonozimendurako Batzordeak, eta bertan aztertuko du ea foru lege honen aplikazio-eremuan ezarritako baldintzak betetzen diren; laburpen bat egiten du biktimaren eskubideen urraketa eragin zuten egitatei buruz, oinarri gisa darabiltzan frogabideak zehaztuta; eta proposatuko du, kasua bada, foru lege honen ondorioei dagokienez biktima deklaratzeko.

2. Eskabidea jaso eta gehienez ere bederatzi hilabeteko epean egin beharko da aipatutako txostena, salbu eta epe horren luzapen arrazoitua justifikatzen duten salbuespenezko inguruabarrak badaude eta ebazpen bidez luzatzen bada.

3. Egindako txostena Nafarroako Gobernuaren justiziaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari igorriko zaio, eta horrek, hiru hilabeteko gehieneko epean, kasuko ebazpena emanen du, eskabidea baietsi edo ezetsiko duena.

4. Ebazpena hilabeteko gehieneko epean jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde interesdunei, eta zer errekurtso jar daitezkeen adieraziko zaie.

5. Epe hori ebazpenik eman gabe igarotzen bada, interesdunek administrazio-isiltasunaren bidez eskaera ezetsizat jotzen ahalko dute. Nolanahi ere, Administrazioak ebazteko betebeharrak izanen du.

6. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, eta horren ebazpenak administrazio bidea amaituko du.

## **LAUGARREN TITULUA**

### **Biktimei laguntzea eta sustapen-neurriak**

#### **16. artikulua.** Informazio-bulegoak.

1. Biktimei lege honen arabera laguntzea Nafarroako Foru Komunitatearen mendekoak diren biktimei laguntzeko bulegoen ardura izanen da. Abenduaren 11ko 1109/2015 Errege Dekretuak arautzen ditu bulego horiek (Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legea garatu, eta delituaren biktimei laguntzeko bulegoak arautzen dituen).

2. Nafarroako Foru Komunitatean, biktimei laguntzeko bulegoek beren sorrerako araudi berariazkoan esleitu zaizkien eginkizunak izanen dituzte.

#### **17. artikulua.** Justizia errestitutiboa.

Biktimek hala eskatuz gero, Nafarroako Foru Komunitateak, justiziaren arloan eskumena duen departamentuaren bitartez, eskura dituen justizia errestitutiboko tresnak biktimei eskainiko dizkie, lege honen xedeak eta helburuak lortzeko.

#### **18. artikulua.** Laguntza-neurriak.

Nafarroako Gobernuak abusuen biktimak ordezkatzeko kolektiboak laguntzeko neurriak hartzen ahalko ditu: besteak beste, zuzeneko aholkularitza, dirulaguntzak eta erakunde publiko eta pribatuekiko bitartekotza.

Laguntzak ematea sustatuko du, halaber, irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio, entitate eta erakunde jardueraren garapenerako, baldin eta haien xede nagusia bada lege honen aplikazio eremuko biktimen interesak ordezkatu eta defendatzea, eta biktimen zaugarritasun bereziko egoera pertsonal edo kolektiboak gainditzen laguntzeko programak garatzen badituzte. Berezi, dirulaguntzak emanen dira arreta programetarako, oroimen eta sentsibilizazio sozialeko programetarako eta biktimei eta haien eskubideei buruzko ikerketa proiektuetarako.

#### **19. artikulua.** Hedapena bultzatzea.

Nafarroako Gobernuak lege honetan jaso diren giza eskubideen urratzei buruzko ezagutzaren eta ikerketaren hedapena sustatuko du. Horretarako, lankidetzak hitzarmenak egiten ahalko ditu erakunde publiko eta pribatuekin, zabalkunderako argitalpenak eta materialak prestatzeko eta informazio jardunaldiak edo biltzarrak egiteko, lege honetan aitortutako eskubideen urratzeen berri zabaltzen lagunduko dutenak.



**20. artikulua.** Biktimen eta beren ordezkaritza-taldeen egitekoaren errekonozimendua.

Nafarroako Gobernuak biktimen eta beren ordezkaritza-taldeen solaskide eginkizuna aitortu du, funtsezko lana egiten baitute kontzientziazioan eta lege honetan jasotzen diren giza eskubideen urratzeen biktimei nazioartean aitortu zaizkien egjarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideen defentsan. Beraz, kontsulta egin beharko zaie parte-hartze mekanismo egokien bitartez, foru lege hau garatu edo betetzeko eman eta haiei eragiten dieten xedapen guztietan.

**Lehen xedapen gehigarria.** Errekonozimendurako Batzordea eratzea.

Errekonozimendurako Batzordea nortzuek osatzen duten aditzera emateko ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean eratu da batzorde hori.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Datu pertsonalak babestea.

1. Lege honetan arautzen diren datu pertsonalen tratamenduak honako hauetan xedatutakoari jarraituz egingen dira: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, pertsona

fisikoen babesa arautzen duena datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indarrik gabe uzten duena 95/46/EE Zuzentaraua; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babes-teari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Tratamenduaren erantzuleak segurtasun neurri egokien aplikazioa bermatuko du, Administrazio elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua betez.

**Azken xedapenetako lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.



## Foru Lege proposamena, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duena.

### AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa. Proposamen hori 2022ko martxoaren 4ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### 1. ZUZENKETA

#### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua lehen apartatua kentzeko zuzenketa.

1. artikulua lehen apartatua kentzen da.

Zioak: Proposatutako arauketa ez dator bat Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen xedearekin eta aplikazio-eremuarekin, kentzen den artikulua bilatzen duen bezala.

### 2. ZUZENKETA

#### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK,

#### PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA

#### FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK

#### ETA IZQUIERDA-EZKERRA

#### TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK

#### AURKEZTUA

Zuzenketa, aldatzekoa 1. artikuluko lehen apartatua, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko 1. artikulua lehen apartatuaren amaieran paragrafo bat gehitzen duena.

“Behar diren mekanismoak prestatzea, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan mota guztietako kirol-apustuen publikitatea debekatuko dutenak kirol-jantzetan, instalazioetan, babesletzan edo antzekoetan, bai eta jokoarekin zerikusia duen edozein negozio- eta/edo jarduerarena ere. Debeku hori kirol kategorian guztietan ezarriko da, eta hura aplikatu ahal izateko baldintzak izanen dira dena delako entitateak egoitza soziala Nafarroan izatea eta kirol-lehiaketa, -jarduera edo -ger-

takariaren eremua tokikoa, probintziakoa edo autonomia erkidegokoa izatea”.

Zioak: “Prostituzio-negozio” espresioaren ordez “jokoaren negozio eta/edo jarduera” espresioa paratzen da.

### 3. ZUZENKETA

#### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,

#### ETA GEROA BAI

#### TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. puntuak testu hau izanen du:

“Behar diren mekanismoak prestatzea, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan mota guztietako kirol-apustuen publikitatea debekatuko dutenak, bai eta horiekin zerikusia duen edozein negozioren publikitatea ere, kirolarien jantzetan, instalazioetan, babesletzan edo antzekoetan. Debeku hori kirol kategorian guztietan ezarriko da, eta hura aplikatu ahal izateko baldintzak izanen dira dena delako entitateak egoitza soziala Nafarroan izatea eta kirol-lehiaketa, -jarduera edo -ger-takariaren eremua tokikoa, probintziakoa edo autonomia erkidegokoa izatea”.

Zioak: Foru lege proposameneko idazketa-oker bat zuzendu nahi da.

### 4. ZUZENKETA

#### EH BILDU NAFARROA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK,

#### PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA

#### FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK

#### ETA IZQUIERDA-EZKERRA

#### TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK

#### AURKEZTUA

Zuzenketa, aldatzekoa 1. artikuluko bigarren apartatua, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko 2. artikulua a) letra aldatzen duena. Honela idatzita geratuko litzateke:

“a) Hirugarrenen kalteak prebenitzea; bereziki, sektorerik ahulenean jasan ditzaketenak, hala nola adingabeek edo laguntzadun desgaituek”.

Zioak: Ordeztu egiten da espresio hau: 'gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen, ebazpenaren edukiaren arabera, edota adimen edo nahi-

men gaitasunak murriztuak dituztenei'. Honako honekin, hain zuzen: 'laguntzadun desgaituei'. Xedea da testua ekainaren 2ko 8/2021 Legea egokitzea, zeinaren bidez legeria zibila eta prozesala birmoldatzen baita, desgaituei beren gaitasun juridikoaren egikaritzean sostengu emateko.

## 5. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita 1. artikuluko hirugarren apartatua, aldatu egiten duena Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen 2. bis artikulua 2. apartatua. Honela idatzita geratuko litzateke:

“2 Horretarako, Hezkuntza Departamentuak prebentzioaren arloko jarduketara programa berrazkoak ezarriko ditu, ikastetxeetan gauzatu daitezkeen, eta lankidetzaren hitzarmenak sinatzen ahalko ditu jokoarekin zerikusia duten patologiak ekiditeko xede duten entitate, elkarte eta abarrekin”.

Zioak: “Ezartzen ahalko ditu”ren ordez “ezarriko ditu” espresioa erabiltzen da, eta gehitzen da sinatzen “ahalko”. Proposatutako aldaketarekin, programa-ezarpenaren nahitaezkotasuna ezarri nahi da, eta hitzarmenak sinatzearen ez-nahitaezkotasuna.

## 6. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua hiruugarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

1. artikuluko hirugarren apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Hiru. Azken paragrafo bat gehitzen zaio 2. bis artikulua 1. apartatuari. Hona testua:

“Horretarako, Hezkuntza Departamentuak prebentzioaren arloko jarduketara programa berrazkoak ezarriko ditu ikastetxeetan ezar daitezkeen, eta lankidetzaren hitzarmenak sinatu jokoarekin zerikusia duten patologiak saihestea xede duten entitate eta elkarrekin”.

Zioak: Asmoa da programa horiek nahitaezko gisa ezartzea.

## 7. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita 1. artikuluko laugarren apartatua, aldatu egiten duena Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen 2. bis artikulua 2. apartatua. Honela idatzita geratuko litzateke:

“2 Joko-antolatzaileek, beren jardunean aritzean, arreta berezia emanen diete arrisku-taldee, eta joko-jarrera neurritsu eta arduratsuak sustatuko dituzte, egoki diren informazio-neurrien bitartez, zeinetan zehatz adieraziko baita debeku dutela parte hartzea adingabeek eta zaurgarriak diren bestelako kolektiboek, hala nola laguntzadun desgaituek, kasua bada”.

Zioak: Ordeztu egiten da espresio hau: 'gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen, ebazpenaren edukiaren arabera, edota adimen edo nahimen gaitasunak murriztuak dituztenei'. Honako honekin, hain zuzen: 'laguntzadun desgaituei'. Xedea da testua ekainaren 2ko 8/2021 Legea egokitzea, zeinaren bidez legeria zibila eta prozesala birmoldatzen baita, desgaituei beren gaitasun juridikoaren egikaritzean sostengu emateko.

## 8. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

1. artikulua 4 bis idatz-zati berria gehitzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Lau bis. 2. ter artikulua berri bat gehitzekoa. Honela geldituko litzateke idatzita:

2. ter artikulua. Joko- eta apustu-enpresek ezarri behar diren joko problematiko eta patologikoaren prebentziorako neurriak.

1. Joko-enpresek eta joko- eta apustu-baimenen titular direnek neurri-plan bat prestatu behar dute jokoak pertsonengan sor litzakeen balizko efektu kaltegarriak samurtzeko, jokoaren eta apus-

tuen jarduera gidatzen duten printzipioak jaso behar dituzte.

2. Kasu guztietan, joko- eta apustu-enpresek, bai eta joko-atari edo -webguneen titularrek ere, honako ekintzez arduratu behar dute:

a) Arrisku-taldeein behar bezalako arreta eman.

b) Beharrezkoa den informazioa eskaini, parte-hartzaileek modua izan dezaten hautaketa arduratsua bat egiteko. Halaber sustatuko da joko-jarduerara eta horrekiko jarrera neurritsua eta arduratsua izan daitezela, ez konpultsiboak.

c) Jakinarazi parte hartzeko eta jokoratzeko zer debeku dauzkaten adingabeek eta debekudunek, hain zuzen Joko-antolamenduko Zuzendaritza Nagusikoa den Jokoratzeko Debekuen Erregistroan sartuta daudenek, eta debeku horiek bermatzeko beharrezkoak diren kontrolbideak ezartzea. Horretarako, afixa bat beharko dute paratuta eduki ikusteko moduko toki batean, lokalaren barruan bai eta kanpoan ere, adierazten duena adingabeek eta debekudunen erregistroan inskribatuta dauden pertsonen debeku dutela apustuetan parte hartzea.

d) Beren langileei prestakuntza-ikastaroak eman, joko arduratsuen jardunarekin eta joko problematiko eta patologikoaren prebentzioarekin zerikusia dutenak.

e) Ikusteko moduko toki batean adierazi nora jo daitekeen ludopatia-problema bat edukiz gero.

3. Joko-jarduerak erantzukizun sozial korporatiboaren oharmenez egin behar dituzte joko- eta apustu-enpresek, enpresa-jardun ireki eta gardenen bitartez, oinarrituak balio etikoetan eta enplegatuekiko, parte-hartzaileekiko, gizarte osoarekiko eta ingurumenarekiko begirunean.

4. Joko-enpresek parte-hartzaileei aukera eskaini behar diete beren gordailuei beren borondatez mugak ezartzeko, orokortasunez ezarritako zenbaterakoak baino gutxiagoak.

5. Jokalariei edo erabiltzaileei buruzko trukean gauzatu litezkeen joko problematikoaren eta patologikoaren prebentzioarako ekintzek errespetatu egin beharko dute datu pertsonalak babestean eta eskubide digitalak bermatzearan alorreko araubidea. Erregelamenduz antolatuko dira trukea egiteko bitartekoak eta bideak, bai eta jokalariek modua izan dezaten dagozkien eskubideak egikaritzeko, araubide horren ildotik.

6. Joko-enpresek ez dute zilegi izanzen jokalariei mailegurik ematea, ez eta beste edozein kreditu-motarik ere, ez eta haiei hobaririk, doako partidarik edo diru bihurtzeko moduko elementurik

ematea edo kredituak edo maileguak lortzeko produktu finantzarioak iragartzerik ere”.

Zioak: Artikulu berri bat sortzen da, arautzen dituen joko- eta apustu-enpresek hartu beharreko prebentzio-neurriak, joko problematiko eta patologikoa dela-eta”.

## 9. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Zuzenketa, aldatzekoa 1. artikuluko bosgarren apartatua, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko 10. artikulua aldatzen duena. Honela idatzita geratuko litzateke:

“1. Jokoari edo apustuei buruz eta/edo jokatzeko edo apustuak egiteko lokal eta tokiei buruz publizitatea egiteko eta jarduera horiei babes emateko, aurretik arlo horretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko zaio. Jakinarazpenean egin nahi den kanpainaren edo jardueraren datuak adierazi beharko dira, hasi baino hilabete bat lehenago gutxienez.

Publizitateak eta sustapenak betiere errespetatu beharko dute Haur eta Nerabeak Babesteko eta haien familiak eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Legean xedatzen dena, bai eta hori garatzeko araudian ezarritakoa ere.

Administrazio eskudunak egiaztatu beharko du ezen, lege ezarritako printzipio, betebeharrak eta debekuak betetzeaz gainera, sustatzen direla joko-jarrera neurritsu, ez-kompultsibo eta arduratsua, eta, betiere, mezuen bidez ohartarazten dela adingabeek joko debekatua dutela.

Kontuan hartu beharko dira, besteak beste, publizitatea emititzeko ordu-tarteak edo hedabideak, pertsona ospetsuak agertzearen debekua edo murriztapenak, eta babesletza- eta sustapen-jardueren erregulazioan joko-jarrera neurritsu eta ez-kompultsiboak sustatu beharra.

2. Honelako komunikazio komertzialak debekatzeko dira:

1. Pizgarri direnak joko-jardun burugabe, kompultsibo, desordenatu, neurrigabe, adikziozko edo patologikoan aritzeko.

2. Jokatzan ez duten pertsonak arbuia eta jokatzan dutenei gailentasun sozial halako bat ematen dietenak.

3. Joko-jarduerak lotzen dituztenak arrakasta pertsonal, familiar, sozial edo profesionala aditzera ematen duten ideia edo portaerekin.

4. Joko batean parte hartzen dutenentzako maileguak edo beste edonolako kreditu-modalitateak eskaintzen dituztenak.

5. Jokoa alternatibatzat iradokitzen dutenak problema pertsonal, profesional, finantzario edo hezkuntzako, bakardadearen edo depresioaren aldean.

6. Saridun izateko aukerari buruz tronparazten dutenak edo apustu-errepikapena iradokitzen dutenak.

7. Mailegu-eskaintzak edo beste edonolako modalitatekoak eskaintzen dituztenak.

3. Kasu guztietan debeku izanen da:

a) Apustu-enpresak kirol-kluben babesle izatea; bereziki, haien publizitatea kirol-jantzetan eta elastikoetan jartzea, edo kirol-instalazio eta -estadioetan.

b) Joko-enpresen publizitatea jartzea Nafarroan egin eta osorik edo partzialki dirulaguntza publikoen bidez finantzatzen den edozein kirol-jardueratan.

c) Publizitatea jartzea zentro hauetatik 300 metrora baino hurbilago dauden euskarrietan: ikastetxeak, kiroldegia, kultura, josteta edo osasun zentroak, edo joko-adikzioa, osasun mentaleko arazo larriak edo adimen-desgaitasuna duten pertsonen errehabilitaziorako lokalak.

d) Kirol-enpresen publizitatea jartzea administrazio publikoen egoitzetan, 18 urtetik beherakoentzako gune publikoetan, osasun-zentroetan, gizarte-zentroetan, zentro-soziosanitarioetan, ikastetxeetan, zinema-aretoetan eta kirol-ekitaldiak egiten diren lokal eta instalazioetan.

e) Postaz, telefonoz edo bide telematikoez publizitatea egitea, eta, oro har, publizitatea etxera igortzea.

4. Joko eta apustuen arloan eskumena duen departamentuak ahalmena izanen du proposatzen den jardueraren egitea debekatu edo baldintzatzeko, baldin eta jardueraren beraren edo bere agresibitatearen ondorioz kalte egiten ahal bazaie ordenamendu juridikoan ezarritako askatasun edo eskubideei, edo sektore sentiberaren bat erabili edo haiei kalte egiten bazaie, hala nola adingabeiei, edota laguntzadun desgaituei. Horrelako

kasuen berri emanen zaio gizarte zerbitzuen eta adingabeentzako babesaren arloan eskumena duen departamentuari.

5. Beren lanbidea, gizartean duten ospea edo beste edozein inguruabar dela-eta adingabeentzat erreferente izan daitezkeen pertsonak jokoaren publizitatean erabili ez daitezen begiratuko da, eta exijituko da publizitatean berariaz ohartaraz dadila jokoak ludopatia eragin dezakeela eta adingabeek debeku dutela jokoan aritzea.

Publizitatean ez da inola ere onartuko osasun arloko profesionalak edo zientzialariek parte hartzerik, ez eta osasunarekin zerikusia duten elkar-te, korporazio, fundazio edo erakundeen abalak erabiltzerik ere”.

Zioak: Gaur egun indargabetuta dagoen abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeari buruz egindako erreferenziaren ordezkari aipamen bat ipintzen da Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Legeaz, zeina berriki onetsi baitu Parlamentu honek, eta testua 8/2021 Legeari doitzen zaio.

Aldatu egiten da 2. apartatua, zenbait komunikazio komertzialen debekua ezartzeko, eta aldatu egiten dira 3. apartatuko a), b) eta c) letrak, publizitate-debekua joko-enpresa guztietara hedatzeko.

## 10. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

1. artikulua bosgarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

10. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“10. artikulua. Jokoen publizitatea.

1. Jokoari edo apustuei buruz eta/edo jokatze edo apustuak egiteko lokal eta tokiei buruz publizitatea egiteko eta jarduera horiei babesa emateko, aurretik arlo horretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko zaio. Jakinarazpenean adierazi beharko dira egin nahi den kanpainaren edo jardueraren datuak, hasi baino hilabete bat lehenago gutxienez.

Publizitateak eta sustapenak kasu guztietan errespetatu beharko dute Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Legeak eta hori

garatzeko araudiak ezartzen duten adingabeen babeserako araudia.

Administrazio eskudunak egiaztatu beharko du ezen, legez ezarritako printzipio, betebeharrak eta debekuak betetzeaz gainera, sustatzen direla joko-jarrera neurritsu, ez-konpultsibo eta arduratsuak, eta, betiere, mezuen bidez ohartarazten dela adingabeek jokia debekatua dutela.

Kontuan hartu beharko dira, besteak beste, publizitatea zabaltzeko ordu-tarteak edo bitartekoak, pertsona ospetsuak agertzeko debekua edo mugak, eta babes eta sustapen jardueren erregulazioan joko-jarrera neurritsu eta ez-konpultsiboak sustatu beharra.

2. Ez da onartuko honelako komunikazio komertzialik:

1. Pizgarri direnak joko-jardun burugabe, konpultsibo, desordenatu, neurrigabe, adikziozko edo patologikoan aritzeko.

2. Jokatzan ez duten pertsonak arbuia eta jokatzan dutenei nagusitasun soziala ematen dietenak.

3. Joko-jarduerak lotzen dituztenak arrakasta pertsonal, familiar, sozial edo profesionala aditzera ematen duten ideia edo portaerekin.

4. Joko batean parte hartzen dutenentzako maileguak edo beste edonolako kreditu-modalitateak eskaintzen dituztenak.

5. Jokoa alternatibatzat iradokitzen dutenak problema pertsonal, profesional, finantzario edo hezkuntzako, bakardadearen edo depresioaren aldean.

6. Saridun izateko aukerari buruz tronparazten dutenak edo apustu-errepikapena iradokitzen dutenak.

3. Kasu guztietan debeku izanen da:

a) Apustu-enpresak kirol-kluben babesle izatea; bereziki, debeku da haien publizitatea jartzea kirol-jantzietan eta elastikoetan, edo kirol-instalazio eta estadioetan.

b) Apustuen publizitatea jartzea Nafarroan egin eta osorik edo partez dirulaguntza publikoen bidez finantzatzen den edozein kirol-jardueratan.

c) Horrelako publizitatea jartzea zentro hauek 300 metrora baino hurbilago dauden euskarrietan: ikastetxeak, kiroldegiak, kultura, josteta edo osasun zentroak, edo joko-adikzioa, osasun mentaleko arazo larriak edo adimen

desgaitasuna duten pertsonen errehabilitaziorako lokalak.

d) Kirol-apustuen publizitatea jartzea administrazio publikoen egoitzetan, 18 urtetik beherakoentzako guneko publikoetan, osasun zentroetan, gizarte zentroetan, zentro soziosanitarioetan, eskola zentroetan, zinema aretoetan eta kirol-ekitaldiak egiten diren lokal eta instalazioetan.

e) Postaz, telefonoz edo bide telematikoez publizitatea egitea, eta, oro har, publizitatea etxera igortzea.

f) Publizitatea egitea Nafarroako egunkari, aldizkari edo bestelako informazio bideetan eta Nafarroan kokatutako irrati eta telebista zentroetan 05:00etatik hurrengo eguneko 01:00 arte.

4. Joko eta apustuen arloan eskumena duen departamentuak ahalmena izanen du proposatzen den jarduera debekatu edo baldintzatzeko, jardueraren ondorioz edo jarduerak bultzatutako indarkeriaren ondorioz antolamendu juridikoan ezarritako askatasun edo eskubideei kalte egiten bazaie edo babestu beharreko sektore sentiberaren bat erabili edo haiei kalte egiten bazaie (adingabeei, edo gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen, ebazpenaren edukiaren arabera, edota adimen edo nahimen gaitasunak murriztuak dituztenei). Horrelako kasuen berri emanen zaio gizarte zerbitzuen eta adingabeentzako babesaren arloan eskumena duen departamentuari.

5. Zaintza-lana eginen da jokoari buruzko publizitatean ez daitezkeen erabil halako pertsonak zeinak, beren lanbideagatik, ospe sozialagatik edo beste edozein zertzeladagatik, erreferentetzat har baitaitezke populazio orokorarentzat eta, batez ere, gazte eta adingabeentzat. Aginduko da jokoa aritzeak ludopatia eragitearen eta aritze hori adingabeei debekatuta egotearen ohartarazpena esanbidez jasota utz dadin.

Publizitatean ez da inola ere onartuko osasun arloko profesionalen edo zientzialariaren parte hartzerik, ez eta osasunarekin zerikusia duten elkarre, korporazio, fundazio edo erakundearen abalakerabiltzerik ere”.

Zioak: Egokituta uztea Nafarroako Parlamentuak 2022ko apirilaren 28an onetsitako Foru Lege berrira, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekora, zeinak indargabetu egiten baitu hasiera batean jasotzen zen legea.



**11. ZUZENKETA**

**EH BILDU NAFARROA**  
**TALDE PARLAMENTARIOAK,**  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
**FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK**  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
**TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK**  
**AURKEZTUA**

Zuzenketa, aldatzekoa 1. artikuluko seigarren apartatua, zeinaren bidez apartatu berri bat gehitzen baitzaio Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko 14. artikuluari. Honela idatzita geratuko litzateke:

“6 Joko- eta apustu-establezimenduen arteko gutxieneko distantziak.

Inola ere ezin izanen da baimenik eman bera-riazko joko-establezimenduak zentro hauetatik 600 metrora baino hurbilago instalatzeko: adingabeei irakaskuntza arautuak ematen dizkieten ikastetxe publiko edo pribatuak, jokalariek patologi-koen errehabilitaziorako zentro ofizialak, adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonen egoitzak, osasun-, kirol-, kultura- eta aisia-zentroak eta gazte-etxeak. Era berean, joko eta apustuen establezimenduen arteko gutxieneko distantzia 300 metro izanen da”.

Zioak: 600 metrora handitzen da zona bereziki sentiberetatik mantendu beharreko gutxieneko distantzia, establezimenduak instalatzeko. Lege proposamenean xedatzen da joko- eta apustu-establezimenduen arteko gutxieneko distantzia 300 metrokoa izanen dela. Uztailaren 31ko 181/1990 Foru Dekretuak, Joko-makinen Erregelamendua onesten duenak, 7. artikuluan dio joko-aretoen artean gaur egun errespetatu beharreko den distantzia indarduna 400 metrokoa dela. Beraz, proposaturiko aldaketak murriztu egiten du distantzia.

**12. ZUZENKETA**

**NAVARRA SUMA**  
**TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

1. artikulua seigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

1. Artikuluaren seigarren apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

«Sei. 14. artikuluari apartatu berri bat eransten zaio. Hona testua:

“6 Joko- eta apustu-establezimenduen arteko gutxieneko distantziak.

Ez da baimenik eman ahal izanen berari-az jokorakoak diren establezimenduak 300 metro baino gutxiagoko distantziara jartzekorik ikasketa arautuak ematen diren ikastetxe publiko edo pribatuetatik, joko-aretoen patologi-koen errehabilitaziorako zentro ofiziale-  
 tatik, adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonen egoitzetatik, osasun-etxeetatik, kirol-zentroetatik eta gazte-etxeetatik. Halaber eta betiere, apustuak egiten diren establezimenduei dagokienez, hots, joko-aretoak eta apustu-etxeak, haien arteko gutxieneko distantzia 300 metrokoa izanen da.

Aurreko paragrafoan zehaztutako distantzia hori kasu guztietan neurtuko da jabari publikoko bidetik oinez egin daitekeen ibilbidea erabiliz.

Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du distantzia hori aldatzea, aurretiaz udalek eskaera eginez beren udal-mugarteetarako. Eskaera horri atxikiko zaio aipatu neurria justifikatzeko txostena.

Ezein kasutan ez da murriztu ahal izanen apustuak egiten diren establezimenduen (joko-aretoak eta apustu-etxeak) arteko 300 metroko distantzia”».

Zioak: Asmoa da distantziak aplikagarri izan dakizkiela gazteentzako ikasketa arautuak ematen dituzten unibertsitate-ikastetxe edo antzekoei ere.

Alabaina, bertan behera uzten da kultura- eta jolas-zentroetarako (zineak, antzokiak...) distantziaren betebeharra, ez delako hautematen zaurgarritasun bereziko ezein egoerarik haien erabil-tzaileen orokortasunarentzat.

Eutsi egiten zaio Nafarroako Gobernuak sektore-  
 a arautzeko daukan eskumenari.

Ekidin egiten dira sektore honetan herrien arteko desberdintasunak, merkatu-batasunaren haus-tura ekar lezaketenak.

Ekidin egiten dira udalerrietako tirabirak eta auzibidean suerta litezkeen balizko eskumen-gatazkak, eta eutsi egiten zaio udal bakoitzak bere herrigunearen eitearen arabera neurriak hartu ahal izateari.

**13. ZUZENKETA**

**NAVARRA SUMA**  
**TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

1. artikulua zazpigarren apartatua kentzeko zuzenketa.

1. artikulua zazpigarren apartatua kentzen da.



Zioak: Adingabeen eta joko-uko egileen sarbidea galarazteko soluzio teknologiko bat ezartzen da, gaur egun merkatuan badaudelarik heldutasunera iritsitako teknologiakoak diren aukera desberdinak, helburu bera bete ahal izanik aintzat hartuak ez direnak.

Horrenbestez, egokiago deritzogu neurri hori joko-makinen jadaneko erregelamenduan jasotzeari, soluzio teknologiko posible guztiak aintzat harturik, beharrezkotzat joz gero.

Neurri horrek lehia-desabantailako egoera sorrarazten du beste komunitate batzuetako beste enpresa batzuekiko, eta agian, are azpisektore honetako merkatu-batasunaren haustura bat, hori osatuta egonda inguruko komunitateekin. Baita makinak berak fabrikatzeari dagokionez ere.

Heldutasunean dagoen azpisektore bat da (ostalaritzako B motako makinena), gizarte-ohituraren aldaketaren ondorioz beherakada samurrean dagoena, eta ez da horretan osasun publikoarentzako arriskuengatik aztoramendu sozialik sumatzen, printzipioz. Arrisku-jarduera bat da baiki, baina arrisiku hori ez zen apustu-etxeen ponentzian aztertua izan, ponentzia horren aztergaitik kanpoko izategatik.

Kolokan jarriko genituzke Nafarroako enpresen, makina-ustiapeneko enpresen eta ostalaritzako establezimenduen bideragarritasuna eta haietako lanpostuak, herritarrentzako arriskuari buruzko azterketa zorrotzik egin gabe.

Gainera, proposaturiko testuak ostalaritzako establezimenduetako langileak behartzen ditu urruneko kontrolgailuaren erabileraren gaineko kontrol bat egitera, horretarako gaituta ez dauden arren. Ordezko soluzio teknologikoei esker, ordea, kontrol hori posible izanen litzateke, kasuko langileak konprometitu gabe.

#### 14. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita 1. artikuluko zazpigarren apartatua, aldatu egiten duena Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen 18. artikulua 4. apartatua. Honela idatzita geratuko litzateke:

“4 Ostalaritza-establezimenduetan eta jate-teeetan ez dago baimenduta inolako joko-makinak instalatzerik”.

Zioak: Ostalaritzako lokaletan apustu-gailuak instalatzearen ondorioz, irisgarritasuna eta eskuragarritasuna areagotu egin da publikorik gazteenarentzat; horrenbestez, proposatzen dugu joko-makinak mugatzea, barne direla eta B motako sari programatudun joko-makinak eta apustu-gailuak, joko-jardunean aritzeko baimena daukaten lokaletara.

#### 15. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,**  
**ETA GEROA BAI**  
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zuzenketa aldatzeko 1. artikulua zazpigarren apartatua, zeinaren bidez aldatzen baita 18. artikulua 4. apartatua. Honako testu hau izanen luke:

“4 Nafarroako Gobernuak joko-makinek bete beharreko baldintzak ezarriko ditu, bai eta, behar izanez gero, toki, lokal edo establezimendu jakinetan joko-makinak jartzeko baldintzak ere.

Kasu guztietan, tabernetako edo ostalaritzako establezimenduetako joko-makinetarako irisgarritasun-sistemak halako elementu teknikoak aintzat hartu beharko ditu zeinek modua emanen baitute haietarako irispidea kontrolatzeko, eta legearen erregelamenduzko garapenean xedatutakoaren esanetara egonen da”.

Zioak: Teknologiaren gaur egungo bilakaera dela-eta, tartea eman behar dugu horrelako makinak eguneratzen joan ahal izateko, halako moldez non adingabeei nahiz jokoratu ezin diren pertsonen kontrolatu eginen baitzaie haietarako irispidea.

#### 16. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua zortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

1. artikulua zortzigarren apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du aurrerantzean:

«Zortzi. 23. artikulua 2. apartatuari paragrafo bat erantsen zaio. Hona testua:

“Baimenduriko toki, lokal eta establezimenduak tabernetatik eta ostalaritzako establezimenduetatik bereizi beharko dira. Debekatu egiten da aipatu

establezimenduetan alkoholdun edarien kontsumoaren publizitatea eta sustapena egitea. Halaber, debekatu egiten da kredituak edo maileguak lortzeko produktu finantzarioen publizitatea egitea”».

Zioak: Adindunentzako lokalak dira, sarbide murriztu eta kontrolatua dutenak; hortaz, justifikaziorik gabekotzat jotzen dugu alkoholdun edariak kontsumitzeko eskubidea murriztea.

Beharrezko deritzogu, alabaina, horien abusua prebenitzeari, publizitatea eta pizgarriak bertan behera utzirik.

Orobat, dakarren arriskuagatik, beharrezko deritzogu joko-lokaletan kreditu eta maileguen publizitatea debekatzeari.

## 17. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

1. artikulua zortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

«23. artikulua 2. apartatuari paragrafo bat eransten zaio. Hona testua:

“Baimenduriko toki, lokal eta establezimenduak tabernetatik eta ostalaritzako establezimenduetatik bereizi beharko dira. Ez dute zilegi izanen alkoholdun edariekin zerikusia duen inolako sustapen publizitatea egiterik”».

Zioak: Joko-establezimenduak adindunentzat baizik ez dira, eta edari-zerbitzua bertako bezeroentzako ez beste inorentzako zerbitzu gisa tankeratzen da.

## 18. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa 1. artikulua 8. apartatuan, zeinaren bidez 23. artikulua 2. apartatuari paragrafo berri bat gehitzen baitzaio. Paragrafo berri bat gehitzen zaio. Hona testu berria:

“Baimendutako tokiek, lokalek eta establezimenduek ez dute zilegi izanen kredituak edo maileguak lortzeko produktu finantzarioak iragar-terik”.

Zioak: Asmoa da halako moldez arautzea non lokalek ezin izanen baitute jokorako pizgarriak eman produktu finantzarioen edo maileguen bidez

erabiltzaileari gehiago jokaraziz. Halatan, egoera korapilatsuak ekiditen dira.

## 19. ZUZENKETA

### EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Zuzenketa, abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko 26. artikulua aldatzen duen 1. artikuluko bederatzigarren apartatua kentzekoa.

Zioak: Artikulu bakarreko 9. apartatua kentzea; izan ere, prebentzio-alorrean joko-enñresek dituzten betebeharrak 2. ter artikulua berrian daude jasota.

Bestalde, artikulua testuan nahastuta ageri dira joko-aretoei buruzko araudia eta apustu-lokalei buruzkoa, halatan nahasmendua sorturik. Esate baterako, 2.a) apartatua jasotzen da joko-edo apustu-aretoek gutxienez ere 50 metro karra-tuko azalera eduki beharko dutela. Egungo araudian, joko-aretoek 100 metro baino gehiagoko azalera behar dute eduki: Proposatutako testuaren bidez, erraztu egiten da joko-lokalen irekiera, egin beharreko inbertsioa murrizten baita. Horregatik guztiagatik, aldaketa hori kentzea proposatzen dugu.

## 20. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. Artikuluaren bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Bederatzi. 26. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“26. artikulua. Joko-aretoak, apustu-lokalak edo antzekoak.

1. Joko-aretoak joko makinak ustiatzen dituzten lokalak dira.

2. Apustu-lokalak dira kirol-apustuen ustiapenerako establezimenduak.

3. Aurreko apartatuetan definitutako lokalek, joko-aretoek eta apustu-lokalek baldintza hauek bete beharko dituzte beti:

a) Aginduzkoa izatea errotulu edo idazkun bat ipinita izan dezaten, apustu-lokal edo apustueremu direla jakinarazten duena.

b) Ikusteko moduko toki batean afixa bat beharko dute paratuta eduki, lokalaren barruan bai eta kanpoan ere, adierazten duena adingabeek eta debekudunen erregistroan inskribatuta dauden pertsonen debeku dutela jokoetan eta apustueta parte hartzea.

c) Harrera-zerbitzuan ongi ikusteko moduan iragarri behar dute adikzioa sor dezakeela joko eta apustueta gehiegi aritzeak, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

d) Joko-atarietan argiro adierazi beharko da adingabeek eta debekudunen erregistroan inskribaturiko pertsonen debeku dutela jokoetan eta apustueta parte hartzea.

e) Ikusteko moduko toki batean kokatu beharko dute, harrera-zerbitzuan, ludopatia-problema bat izanez gero nora jo daitekeen jakinarazten duen oharra».

Zioak: Legean ez da apustu-etxe edo -denden definiziorik ematen; bai, ordea, gainerako joko-jarduerena. Horrenbestez, legearen espirituari jarraituz, garrantzitsu deritzogu definitzeari. Nafarroan eginkizun dago apustuei buruzko erregelamendu bat; horregatik, garrantzizkoa da jarduera hori argiro definitu eta joko-aretoenetik bereiztea.

Bertan behera uzten da gutxieneko azalerari buruzko agindua, egungo araubidean erraztu egiten duelako apustu-areto gehiagoren sorrera.

Aipamena egin behar da bai jokoei bai apustuei buruz.

## 21. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

1. artikulua. Bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

«Bederatzi. 26. artikulua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzirik:

“26. artikulua. Joko-aretoak:

Joko-aretoak dira joko-makinak ustiatzen direneko lokal edo guneak dauzkaten establezimenduak, eta halaber eduki ditzakete beste aukera ludiko baimendu batzuk aurrera eramateko prestaturik daudenak».

Zioak: Joko-areto kontzeptua definitzea abuztuaren 30eko 270/1999 Foru Dekretuaren 2. artikulua 72/2010 Foru Dekretua dela medio daukan testuan jokoari ematen dion definizioaren bidetik.

## 22. ZUZENKETA

### **EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

Zuzenketa, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko 26. artikulua berria gehitzen duen 1. artikuluko hamargarren apartatua kentzekoa.

Zioak: Proposatzen dugu era guztietako joko-makinak debekatuta egon daitezela ostalaritzan eta jatetxeetan.

## 23. ZUZENKETA

### **NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

1. artikulua. Hamargarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

«Hamar. 26. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

“26. bis artikulua. Apustu-makinak ostalaritzako establezimenduetan edo antzekoetan.

1. Taberna, taberna berezi, kafetegi eta kafe-ikuskizun gisa berariaz baimendutako ostalaritzako establezimenduek apustu-makina bat bakarrik instalatu ahal dute. Hori gorabehera, baimena ematen ahal da lokal horietan sari programatuko joko-makina bat instalatzeko, B motakoa.

2. Instalatzen den apustu-makinak aktibatu eta desaktibatzen den sistema teknologiko bat eduki beharko du. Horrela jokoan aritzea eragotziko zaie jokoak debeku duten pertsonen eta adingabeen.

Erregelamendu bidez ezarriko da zer baldintza eduki behar dituzten apustu-makinetan jar daitezkeen sistema teknologiko desberdinek, zeinek bermatuko baitute joko-debekuak dauzkaten pertsonen edo adingabeen iritsezintasuna.

Joko-partidak amaitu ondoren, eta apustu-makina erabilia izaten ari ez den bitartean, desak-

tibatuta egonen da, soinu-zko, ikusizko edo argizko kitzikagarririk ez dariola.

3. Erregelamendu bidez egokitze epe bat ezarriko da, ostalaritzako establezimenduetan gaur egun instalatuta dauden apustu-makinei aktibatu eta desaktibatze sistema ezartzeko.

4. Apustu-makina instalatuta dagoen ostalaritza-establezimenduaren titularraren erantzukizuna da legez ezarritako jokoratzeko-debekuak betetzea eta horiek establezimenduko langileei betearaztea.

5. La instalación de este tipo de máquinas de apuestas en los establecimientos de hostelería referidos no puede realizarse en terrazas o vías públicas, ni en el exterior de los locales, así como en los bares o cafeterías ubicados en el interior de centros docentes, universitarios, sanitarios, sociales o juveniles y de recintos deportivos”».

Zioak: Badaude heldutasun-fasera iritsiak diren zenbait teknologia, adingabeek eta joko-uko egileek apustu-terako sarbiderik izan ez dezaten berma dezaketen apustu-gailuei eransteko modukoak. Ez dago sistema bakar bat, eta erregelamenduz ezarri beharrekoak direla deritzogu.

Kontzeptuak nahasten dira, hala nola joko-makinak, apustu-makinak, makina osagarriak eta apustu-gailuak, joko-makinei buruzko erregelamenduan definituta daudenak eta nahasmendua sortzen dutenak.

Kontrolaren erantzukizuna establezimenduaren titularrarena behar da izan, eta ez bertako langileena.

## 24. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

1. artikulua hamargarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

«Hamar. 26. bis artikulua berri bat gehitzen da. Hona testua:

“26 bis artikulua. Kirol-apustuak.

1. Apustu-lokalak dira kirol-apustuen ustiapenerako establezimenduak.

2. Aurreko apartatuan definitutako lokalek baldintza hauek bete beharko dituzte beti:

a) Gutxienez 50 metro karratuko azalera izan behar dute.

b) Nahitaez beharko dute harrera- edo onarpen-zerbitzu informatizatu bat eduki, sartzen utziko ez diena 18 urte baino gutxiagokoei eta jokari beren kasa uko egin dioten pertsoneri.

c) Aginduzkoa izanen da errotulu edo idazkun bat ipinita izan dezaten, apustu-lokal edo apustu-eremu direla jakinarazten duena.

d) Ongi ikusteko moduan kartel bat jarri behar dute adierazteko debeku dutela apustu-terako parte hartzea adingabeek eta debekudunen erregistroan inskribatutako pertsonen, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

e) Harrera-zerbitzuan ongi ikusteko moduan iragarri behar dute adierazteko sor dezakeela joko eta apustu-terako gehiegi aritzeak, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

f) Joko-atarietan argiro adierazi beharko da adingabeek eta debekudunen erregistroan inskribaturiko pertsonen debeku dutela apustu-terako parte hartzea.

3. Apustu-terminalak ostalaritzako establezimenduetan edo antzekoetan.

a) Taberna, taberna berezi, kafetegi eta kafe-ikuskizun gisa berariaz baimendutako ostalaritzako establezimenduen apustu-makina osagarri bat bakarrik instalatu ahal dute. Hori gorabehera, baimena ematen ahal da lokal horietan sari programatutako joko-makina bat instalatzeko, B motakoa.

b) Paratzen den apustu-makinak apustu-irispidearen gaineko kontrola bermatzea ahalbidetzen duten elementu teknikoak eduki beharko ditu, lege honetako 18.4 artikulua ezarritakoari jarraikiz, halako moldez non ekidin egingen baita joko-debekuak dituzten pertsonak edo adingabeak jokoratu ahal izatea.

Joko-partidak amaitu ondoren, eta erabilia izaten ari ez den bitartean, desaktibatuta egonen da, soinu-zko, ikusizko edo argizko kitzikagarririk ez dariola.

c) Egokitze-aldi bat ezarriko da, ostalaritzako establezimenduetan gaur egun instalatuta dauden makinei lege honen 18.4 artikuluan ezarritako sarbide-kontrol sistemak jar dakizkien.

d) Makina paratuta dagoen lokaleko arduradunek legez ezartzen diren joko-debekuak betearaztearen erantzukizuna hartzen dute.

e) Horrelako makinak aipatu ostalaritza-establezimenduetan instalatzerakoan, ezin dira paratu terraza edo bide publikoetan, ez eta lokalaren kanpoaldean ere, ez eta ikastetxe-, uniber-

tsitate-, osasungintza-, gizarte- edo gazteria- erai-  
kinen barneko eta kirol-guneetako tabernetan”.

Zioak: Apustu-lokalak definitzea, testuari sekto-  
rearen errealitatearekiko leialtasuna emanez, eta  
egungo arau-egiturarekiko koherentziaz.

## 25. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

Zuzenketa 1. artikuluari bederatzi bis apartatu  
berria gehitzeko. Horren bidez, 26. ter artikulua  
berria sortzen da, kirol-apustuatarako lokalak  
definitze aldera. Hauxe izanen litzateke horren  
testua:

“26. ter artikulua. Kirol-apustuatarako lokalen  
definizioa:

1. Apustu-lokalak dira kirol-apustuen ustiap-  
nerako establezimenduak.

2. Aurreko apartatuan definitutako lokalek  
baldintza hauek bete beharko dituzte beti:

a) Haien azalera erabilgarria ez da 50 metro  
karratu baino gutxiagokoa izanen, bereziki joko-  
eta apustu-jardunari eskainia. Zenbaketa horretatik  
kanpo egonen dira harrerarako eremuak, kasua  
bada, bai eta bulegoak, komunak, biltegiak eta  
aipatu jardunerako zuzen-zuzenean ez den beste  
edozein eremu.

b) Nahitaez beharko dute harrera- edo onar-  
pen-zerbitzu informatizatu bat eduki, sartzen ut-  
ziko ez diena 18 urte baino gutxiagokoei, jokoari  
beren kasa uko egin dioten pertsonaei eta hordita-  
sunaren, droga-intoxikazioaren edo beren onean  
ez egotearen zantzuak agertzen dituzten per-  
tsonaei ere”.

Zioak: Nafarroan apustuei dagokiena garatuko  
duen erregelamendua egiten ez den bitartean,  
beharrezkoa da gutxieneko definizio bat eduki-  
tzea.

## 26. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hamar. bis apartatu berria gehitzeko zuzenke-  
ta. Hona testua:

«Hamar bis. 30. artikuluari apartatu berri bat  
eransten zaio. Hona testua:

“2 Joko-aretoetan edo apustu-lokaletan beren  
lana bezeroak artatuz egiten duten langileek  
prestakuntza jaso beharko dute enpresarengan-  
dik, adikzioei eta joko patologikoko esku-hartzeari  
buruzkoa”».

Zioak: Garrantzitsua da, ponentziaren  
txosteneko IV, A.1, 2 atalean proposatu zen beza-  
laxe, jokalaria artatzen dituzten langileei  
prestakuntza zehatza ematea joko konpultsiboko  
edo ludopatiako arriskuak identifikatu ahal izan di-  
tzen, haiek jardueraren arriskuaz kontzientzia-  
tzea, eta joko arduratsua susta dezaten eta jokoari  
uztarturiko arriskuak prebeni ditzaten.

## 27. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

Zuzenketa, aldatzekoa 1. artikuluko hamaika-  
garren apartatua, zeinaren bidez aldatzen baita  
16/2014 Foru Legearen 32. artikulua. Honela gel-  
dituko da:

“d) Kontsumo Ministerioaren mendeko Jokoa-  
ren Antolamendurako Zuzendaritza Nagusiko  
Jokoratze Debekuen Erregistroan joko-uko egile  
diren pertsonak”.

Zioak: Izen osoa jasotzea.

## 28. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

Zuzenketa, aldatzekoa 1. artikuluko hamabiga-  
rren apartatua, zeinaren bidez letra berri bat gehi-  
tzen baitzaio 38. artikuluari. Honela geldituko da:

“q) Joko-enpresen publizitatea jartzea kirola-  
rien jantzietan, instalazioetan, babesletzan edo  
antzekoetan, edozein motatako kirol-lehiaketa, -  
jarduera edo -gertakarietan, betiere entitateak  
Nafarroan badu egoitza soziala eta kirol-lehiaketa,



-jarduera edo -gertakaria toki eremukoa edo autonomia erkidegoaren eremukoa bada”.

Zioak: Apartatua aldatzen da joko-enpresen publizitate oro aintzat hartzeko.

### 29. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarri berria. Legeak indarra hartu ondoko urtebeteko epean, erretiratu egin beharko dira ostalaritza-lokaletan eta jatetxeetan paratuta dauden joko-makinak, zeinak joko baimenduko beste establezimendu zehatz batzuetan kokatu ahalko baitira”.

Zioak: Urtebeteko epea ezartzen da ostalaritza-lokalak eta jatetxeak 18. artikuluan jasotzen diren xedapen berrietara egokitu ahal izan daitezkeen.

### 30. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapen berria. Foru lege proposamen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari foru lege proiektu bat igorriko dio, Nafarroan zerga berezi bat sortzeko joko-enpresen mozkinen gainean, horien urte osoko % 2koa.

Zerga hori bideratuko da ludopatia eta jokodizioari loturiko patologiak tratatzeko eta prebenitzeko funts berezi bat finantzatzera. Funts hori Nafarroako Gobernuak administratu eta kudeatuko du”.

Zioak: Ludopatiaren aurkako borrokari dirubaliabideak esleitzea.

### 31. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapen berria. Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak emanen ditu Nafarroan apustuak erregelamendu bidez garatzeko”.

Zioak: Egiteke dago Nafarroako apustuen erregelamendua, zeina, lege honen aitzinsolasean bertan esaten den bezala, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epai bidez deuseztatua izan baitzen.

### 32. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA**  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapen berria. Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak emanen ditu Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko erregelamenduzko garapen indardunak eguneratze aldera”.

Zioak: Proposatzen ditugun aldaketak erregelamendu bidez zehaztu behar dira; batez ere, apustu-makinei buruzkoak direnak.

### 33. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,**  
**ETA GEROA BAI**  
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Hitzaurreko bigarren paragrafoaren ondoren paragrafo bat gehitzeko zuzenketa.

“Nabarmendu beharrekoa da foru lege honetan ez dela jasotzen loterien estatu-erreserbako joko-ei, lokalei edo gailuei dagokiena, horiek Jokoaren Araubideari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legean araututa egonik. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitateak ez du gai horretan eskumenik”.

Zioak: Egoki deritzogu aitzinsolasean zehazteari zer gai ez diren arautu behar Foru Komunitateak horietan eskumenik ez edukitzeagatik.





---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten “lindano” izenarekin ezagutzen den pestizida dela-eta.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko maiatzaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: «Horren bidez, Estatuko Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten “lindano” izenarekin ezagutzen den pestizida dela-eta».

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Lehen. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du substantzia lehenetsien eta lehenetsi arriskutsuen zerrenda sar dezan Gizakien kontsumorako uraren kalitaterako irizpideak ezartzen dituen 140/2003 Errege Dekretuan, bai eta Azaleko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ezartzen dituen 817/2015 Errege Dekretuan ezarritako kontrol-parametroak eta mugak ere.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du substantzia lehenet-

siak eta lehenetsi arriskutsuak aintzat har daitezzen balizko aldaketak egitean urriaren 31ko 231/1986 Foru Dekretuan, zeinaren bidez zentrosare bat ezartzen baita kontsumo publikoko edateko uraren osasun-zaintzarako.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du giza kontsumorako ez-gai deklaratu daitezzen, giza osasunerako arriskua aztertu ondoren, substantzia lehenetsitarako eta beste kutsatzaile batzuetarako ingurumen-kalitateko arauak urratzen dituzten hornidura-eremuetatik datozen urak.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du 2022tik 2027ra bitarte exekutatu beharreko plan hidrologikoen bigarren fasearen okerrak zuzen ditzan eta berriazko neurri zuzentzaileak aplikatu daitezzen substantzia lehenetsiak ezabatze aldera azaleko nahiz lurrazpiko uretatik, ingurumenari buruzko legeria indardunarekin bat.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hedatze kanpainak egin ditzan funtzionarioen artean sustatzeko hartutako neurrietan parte-hartzea, enpleguaren banaketa handiagoa lortzeko xedez.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko maiatzaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hedatze kanpainak egin ditzan funtzionarioen artean sustatzeko hartutako neurrietan parte-hartzea, enpleguaren banaketa handiagoa lortzeko xedez".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, hedatze kanpainak egin ditzan funtzionarioen artean sustatzeko hartutako neurrietan parte-hartzea, enpleguaren banaketa handiagoa lortzeko xedez".

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da giza papilomaren birusaren aurkako babeserako Nafarroako txertoaren egutegia egokitu dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko maiatzaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da giza papilomaren birusaren aurkako babeserako Nafarroako txertoaren egutegia egokitu dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1 Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du, Nafarroako txerto-egutegian giza papilomaren birusaren aurkako txertoa sar dezan 12 urteko mutikoentzat, neskatoekin egin den bezalaxe.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, balora dezan txerto-egutegi komunean giza papilomaren birusaren aurkako txertoa sqrtzea 12 urteko mutikoentzat".

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da LOM-LOE legea garatzen duten curriculumari buruzko dekretuetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko mailetan sar dezan berdintasuna, bizikidetzaren indarkeriarik eza eta bakea helburu dituen heziketa afektibo-sexualaren curriculum-espazio bat.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da LOMLOE legea garatzen duten curriculumari buruzko dekretuetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko mailetan sar dezan berdintasuna, bizikidetzaren indarkeriarik eza eta bakea helburu dituen heziketa

afektibo-sexualaren curriculum-espazio bat. Mozioa, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu zuen eta 2022ko apirilaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan 2022an jada aplikatzekoa den PFEZaren tarifaren deflaktazio progresiboari begira.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan 2022an jada aplikatzekoa den PFEZaren tarifaren deflaktazio progresiboari begira. Mozioa María

Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu zuen eta 2022ko maiatzaren 10eko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Espainiako zentral nuklearren bizitza baliagarria luzatzeari buruzko azterlan orokor bat agin dezan.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Espainiako zentral nuklearren bizitza baliagarria luzatzeari buruzko azterlan orokor bat agin dezan. Mozioa, Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aur-

keztu zuen eta 2022ko maiatzaren 10eko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko lau kideak izendatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 12an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Nafarroako Parlamentuak Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzorderako izendatu beharreko honako kide hauek izendatzea:

- Marta Rodríguez Fouz andrea.
- Mikel Berraondo López jauna.

- Roldán Jimeno Aranguren jauna.
- María Soledad Barber Burusco andrea.

2. Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an  
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukidea izendatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 12an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide honako hau izendatzea:

- Javier Arza Porras jauna.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea".

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an  
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



